

EIBARTEGIKOA2017

PLAN ESTRATEGIKOA 2015-17 PLAN ESTRATÉGICO



SDEIBAR
fundazioa


SD Eibarren 2015-2017ko Plan Estrategikoa 2015eko urrian aurkeztu zen "Eibartegikoa 2017" markapean: Eibarrek taldearen historiako 75 urteetan metatutako esperientzia ekarri du prozesu honetara, baina pentsaera irekia du, bertoko oinarri sozialari entzuteko eta taldea bera modernoagoa, irekiagoa eta gardenagoa izateko, geure historia, muina eta balioak alde batera utzi gabe.

Partaidetzazko metodologian, taldeko oinarri soziala ordezkatzeko arlo guztietako 100 parte-hartzaile baino gehiago zuzenean inplikatu dira planaren prestaketan. Izan ere, Eibar taldeak eskualdearentzat eta hiriarentzat sortu dezakeen onura sozial eta ekonomikoa areagotzea dauka helburu.

Lehen Mailan emandako bi denboraldien ostean, elitean sendotzeko funtsezko unea da taldearentzat. Hain zuzen ere, politika eta aldaketa berriak ezarriko ditu, Lehen Mailan jokatu duen hirugarren denboraldian indartsuago egoteko. Hori dela eta, SD Eibarrek posizio estrategikorako prozesua garatu du, honaino ekarri gaituzten balioetan oinarritutako enpresa-eredua lortzeko. Dena dela, irekiagoa eta berritzaileagoa ere izan behar da aldi berean, eta partaidetza demokratikoa nahiz gardentasuna eduki behar ditu ezaugarri bereizgarri. Taldearen balio tradizionalak ez ezik, hau da, xumetasuna, lana, ahalegina, talde-izpiritua, elkartasuna, sakrifizioa eta hobetzeko izpiritua, honako besteok ere nabarmendu dira Plan Estrategiko hau egiteko orduan: lidergoia/asmo handia, bikaintasuna, marka-irudia, gardentasuna, partaidetza demokratikoa, osotasuna eta aniztasuna.

Plan Estrategikoa honako lan-lerro hauen inguruan dago egituratuta:

1. ----- Kirol-eredua
2. ----- Garapen ekonomiko eta sozialaren sustatzailea
3. ----- Kudeaketa aurreraturako eredua
4. ----- Eibar marka
5. ----- Ipurua Tallarra



Plan Estrategikoa Jakinarazteko eta Gizarteratzeko Plana

2017ra arte Eibar taldearen lan-lerro nagusiak zein izango diren zehaztu ondoren, masa sozialari aurkeztu zaizkio (2014-2015eko denboraldian), eta planaren lerro nagusiak eztabaidatu dira hainbat interes-taldetan. Une honetan, talde horietan sortutako hobekuntza-ideia, iradokizun eta zuzenketa guztiak planean kontuan hartu eta sail bakoitzeko kudeaketa-planetan ezarri dira 2016ko denboraldiari begira. Horrela, bada, Plan Estrategikoa bera aberastu da Eibar taldeko masa soziala osatzen duten interes-talde nagusiek egindako ekarpen zuzenen bitartez (abonatuak, akziodunak, instituzioak, alderdi politikoak, babesleak, zaleak, lagunarteetako kideak, komunikabideak, jokalaria, oinarrizko futboleko jokalarien gurasoak, merkatarien eta ostalarien elkarteak, eskualdeko enpresak, garapenerako agentziak...).

Honako hauexek izan dira taldeko fundazioaren zuzendaritzapean Plan Estrategikoa Jakinarazteko eta Gizarteratzeko egindako Plan honen mugarri nagusiak :

1. Interes-taldeetatik feedbacka arakatzeko prozesua

2014/10/01etik 2015/06/30era
(Ipuruako futbol-zelaia)

Talderako interes-taldeetako era guztietako lagunek osatutako 16 lan-talderen bidez (lehenengo futbol-taldea, jokalaria ohiak eta kontseilukide ohiak, oinarrizko futbola, babesleak, instituzioak, komunikabideak edo erakunde sozialak), taldearen gaur egungo egoerari eta etorkizunerako erronkei buruz dituzten iritzizkiak biltzeko dinamikak garatu dira. Feedback hori, gainera, egituratu eta Plan Estrategikoaren oinarrian bertan hartu da kontuan.

2. Parte-hartzaileei ondorioak aurkezteko prozesua

2015/10/15 (Iparraldeko Tribuna, Ipuruak)
Plan Estrategikoa eta lan-lerro nagusiak aurkeztu genizkien prestaketan parte hartu duten oinarri sozialeko 200etik gora laguni.

3. Foro Estrategikoaren Eraketa

2015/11/10 (Bilera-gela, El Corte Inglés)
Foro Estrategikoa eratu zen, hau da, 30 lagunek bost azpitaldetan osatutako organoa, ekintza-lerroak osatzeko, eztabaidatzeko eta garatzeko. Izan ere, azpitalde bat dago Plan Estrategikoaren lan-lerroko.



4. Herritarrek Parte Hartzeko Prozesua

2015/11/14 (udaletxeko atondua)

Udaletxeko atonduan egindako Open Session Work & Coffearen bidez, Plan Estrategikoaren berri eman zitzairen herritar guztiei, eta bertaratutako jende guztiak planari buruz eztabaidatzeko eta plana bera aberasteko prozesuan parte hartu ahal izan zuen.

5. Herritarrek Parte Hartzeko Prozesua

2015/12/10 (udaletxeko atondua)

Open Session Pintxopotearen bitartez, herritarrei Plan Estrategikoaren berri eman zitzairen bigarren aldiz. Hain zuzen ere, euren ideia guztiak adierazi eta zuzenean ezagutu ahal izan zituzten taldeko sail bakoitzeko arduradunak.

6. Foro Estrategikoaren bilera Ipurua Tallarraren Taldearekin

2016/01/14 (Prestakuntza Zentroa, Ipurua)

Foro Estrategikoa osatzen duten bost taldeetatik, honako gai hauei buruz eztabaidatzeko batzartu zen lehenengoa: Ipuruako futbol-zelaia birmoldatzea, eremu berriak zein negozio-lerro berriak sortzea eta Ipuruako futbol-zelaia auzoan zein hirian bertan integratzea.

7. Foro Estrategikoaren bilera Eibar Markaren Taldearekin

2016/01/21 (Prensa Aretoa, Ipurua)

Azpitaldearen bilera honetan, honako gai hauek jorratu zituzten: Eibar taldeko markaren posizioa, hiriko zein eskualdeko markaren estrategiarekiko lotunea eta filosofia eibartarra zehazten duten produktu nahiz zerbitzuen sustapen bateratua.

8. Foro Estrategikoaren bilera Kirol Ereduaren Taldearekin

2016/01/25 (Prensa Aretoa, Ipurua)


Kirol-ereduaren aldaketari buruzko hausnarketa talde honen esparruan egin zen, eta honako hauexek izan ziren eztabaidagai sakonak: nola modernizatu funtsezko faktoreak Lehen Mailara ekarri gaituena aldatu gabe, fitxaketetan gastutik inbertsiora emandako urratsa, jokalarien birbalarazioa edo oinarritzko futboleko lortu beharreko erronka.

9. Foro Estrategikoaren bilera Garapen Ekonomiko eta Sozialaren Sustatzailearen Taldearekin

2016/02/10 (Prentsa Aretoa, Ipurua)
Eibar taldea garapen ekonomiko eta soziala sortzen duen enpresatzat hartzea eztabaidagai oparoa izan zen taldearen bilera honen esparruan, honako hauxe kontuan hartuta: zergen ordaintzetan edukitako eragin ona, tokiko enpresa-sarearen garapena eta turismoan, merkataritzan edo ostalaritzan daukan eragina.

10. Foro Estrategikoaren bilera Kudeaketarako Ereduaren Taldearekin

2016/03/10 (Prentsa Aretoa, Ipurua)
Foro Estrategikoa osatzen duen bosgarren azpitaldeak taldeko enpresa-kudeaketarako eredua hartu zuen kontuan, eta funtsezko gai hauek jorratu ziren bertan: sailen profesionalizazioa, egitura eta organigrama, Administrazio Kontseiluaren eta sailen arteko harremanak eta erabakiak hartzean erakunde arina izaten jarraitzeko beharrezkoak diren aldaketak, gardentasuna garrantzi handiko enpresa-balioa izan behar dela kontuan hartuta.



11. Sailen arteko eta Administrazio Kontseiluaren bilerak, ondorioak aztertu eta onartzeko eta lan-lerroak osatzeko

2016/03/15 (Batzar-gela, Ipurua)
Azken urrats moduan, zuzendaritzako organigramak eta Administrazio Kontseiluak zenbait bilera egin zituzten, Plan Estrategikoa Jakinarazteko eta Gizarteratzeko Planaren ondorioz lortutako ondorio nagusiak aztertzeko, lehendik zeuden lan-lerroak eduki berriaren bitartez osatzeko eta lan-arlo berriak sailtako kudeaketa-planetan ezartzeko.

Jakinarazteko eta Gizarteratzeko Planaren ondorioz Plan Estrategikoan egindako eransketa nagusiak

Hona hemen kezkei erantzuteko asmoz Plan Estrategikoan bertan egindako eransketa nagusiak:

1. Herritarrek Parte Hartzeko Prozesuak I eta II

- + Kanpoko komunikazioa hobetu beharra dagoela hartu da kontuan, masa sozialak antzemandako komunikazio-gabezia egiazkoa dela egiaztatu delako. Horretarako, publizitate ordaindua jarri dugu sare sozialetan nahiz prentsan.
- + Bulegoetan eta leihatiletan sarrerak erostea eta abonua liberatzea oso zaila dela adierazi digutenez, sarrerak on line saltzeko prozesua hobetu eta erraztu egin da. Era berean, eserlekuak liberatzeko prozesua ere oso-osorik egin daiteke on line.
- + Askoren hausnarketaren arabera, taldea txikiengana hurbildu behar da, eta eragin ona eduki behar du eredu sozialak zabaltzeko orduan. Horretarako, hiriko eta eskualdeko ikastetxeek Ipurua bisitatzeko programa jarri da abian.
- + Ipurua bera baliabide turistikoa eta sozial eskuragarri moduan erabiltzea proposatzean, 2016-2017ko denboraldiaren hasieran jende guztiarentzako bisitaldia Ipurua zabaltzeko lan egitea erabaki dugu.

2. Foro Estrategikoa - Ipurua Tallarraren Taldea


- + Ipuruako futbol-zelaia birmoldatzeko proiektuaren ondorioz, auzoaren itxura aldatuko da goitik behera. Hori dela eta, herritarren partaidetzarako prozesua sortzea erabaki dugu. Horretarako, informazio idatzia bidali diegu bizilagunei, eta informaziorako bilerak egin ditugu.
- + Nabarmendu egin da alderdi politikoen ustez adostasuna lortu beharko litzatekeela. Hori dela eta, plan berezia jarri da abian, alderdiekin zein instituzioekin batzartzeko eta Ipuruaren birmoldaketarako adostasuna erdiesteko.
- + Jendearen esanetan, auzokideak eta haien iritzia kontuan hartu behar direnez, herritarren partaidetzarako prozesuan proiekturako aldaketak proposatu ahal izango dituzte, kontuan hartu daitezten.
- + Auzoko trafikoa hobetzeko eta aparkalekuaren arazoa konpontzeko asmoz lan egiteko eskabideak kontuan hartuta, taldeak proiektua aldatu du, ekialdeko tribuna berriaren azpian aparkalekua egiteko eta aparkaleku publikoak gainezka ez egoteko.

3. Foro Estrategikoa - Eibar Markaren Taldea

- + Zenbait taldek iradoki dutenez, taldea ez da batera hurbila. Beraz, iritzi hori aldatzeko, kontseilukideek edo jokalariek agerpen handiagoa izango dute ekitaldi publiko, auzoetako jai edo herriko ekitaldietan.
- + Behin eta berriro ere aipatzen da Eibar taldeak hiriko beste baliabide batzuk erantsi ditzakeela. Horretarako, beste baliabide eta erakunde horiekin hitz egiten hasi gara (Basquetour, esaterako), hiriko zein eskualdeko estrategia turistikoa sortzeko.
- + Funtsezko herrialdeetan preskriptore zuzenak eduki ditzakegu, taldeko enbaxadoreak izan daitezten. Hori dela eta, behar besteko plana jarri dugu abian, funtsezko herrialde horietan lagunartean sustatzeko eta abian jartzen ari diren ekimenen bitartez nazioartean ezartzeko.

4. Foro Estrategikoa - Kirol Ereduaren Taldea

- + Oro har egiaztatu ahal izan denez, oinarrizko futbola maila gorenean benetan lehiakorra izan dadin, azpiegitura hobekia eduki behar ditugu. Hori dela eta, epe ertainerako plana jarri dugu abian, geure balizko kirol-hiria sortzeko.
- + Eibar B desagertzea akats historikoa izan da, eta horren ondorio kaltegarriak gaur egun ere badaude indarrean. Hausnarketaren ondorioz, zenbait lan-lerro zehaztu dira, gaur egungo CD Vitoria filiala geure egiteko eta Urko Mendi bera filialaren eta Ohorezko Mailako Gazteen Taldearen arteko hutsunea ordezkatuko duen aukeratzat hartzeko.
- + Taldea bera bat dator urteen joan-etorrian jokalarien fitxaketetan gastutik inbertsiorako urratsa eman beharra dagoela eta fitxaketok birbaloratu egin daitezkeela adierazteko egindako ekarpenekin. Hain zuzen ere, taldeak etorkizunerako dituen planak indartu dituzte.
- + Halaber, jarrera ahobatekoa ere bada jokari berrientzako kontratuaren iraupena luzatu egin beharra dagoela adierazten denean. Kirol Zuzendaritza bera ere bat dator horrekin, gaur egungo plana indartzen da eta diru-sarrerak lortzeko lerro gehigarria ere bada.



5. Foro Estrategikoa - Garapen Ekonomiko eta Sozialaren Sustatzailearen Taldea

- + Oro har azaldutakoaren arabera, ez dakigu Eibar taldeak tokiko ekonomian daukan benetako eragin ona nolakoa den. Hori dela eta, eragin horri buruzko txosten ekonomikoa egin eta zabaldu egin beharra dago.
- + Merkatarien eta ostalarien elkarrekin adierazi dutenez, aurrera egin beharra dago, eserlekuen kopurua gehitzeko eta eskualdeko beste herri batzuetako bizilagunak erakartzeko. Hori dela eta, taldearen lan-lerroa sendotu da alde horretatik.
- + Merkatarien eta ostalarien elkarrekin taldearekin berarekin elkarrekiko sustapenerako dinamika bateratuak sortzea proposatu dutenez, eurekin aldiari aldi bilerak egitea erabaki dugu.

6. Foro Estrategikoa - Kudeaketa Aurreraturako Ereduaren Taldea

- + Jendeak oso iritzi ona dauka taldearen gardentasun-politikari buruz. Mezu hori kontuan hartuta, beraz, gardentasun-politiketarako lan-lerroen sustapena indartu beharra dago.
- + Era berean, jendearen ustetan, oso ona ere bada masa sozialak taldearen erabakietan Akziodunen Batzarretik harago eduki beharreko partaidetza sustatu izana. Hori dela eta, sakonago aztertu behar dugu nola jarraituko dugun interes-taldeek erabakietan eduki beharreko partaidetza hori SD EIBAR FUNDAZIOAREN bidez sustatzen.
- + Eibar taldeak enpresa moduan nolako erakunde-eredua izan behar duen hausnartu beharra dago.
- + Adostasuna orokorra da, enpresa-eredu berria arinagoa izan behar dela eta jabeak zuzendaritza-taldeari autonomia eta proaktibotasun handiagoa eman behar diola adieraztean. Horretarako, taldeak bete-betean lan egingo du, egitura modernizatze eta sail-buru bakoitzak autonomia zein erabaki-ahalmen handiagoa edukitzeko.

ESKERRIK ASKO

Funtsezkoa izan da Plan Estrategikoan parte hartu izana.
Zure iritziei esker, geure plana aberastu ahal izan dugu.
SD Eibarrem etorkizuna moldatu duen protagonista handia zara.